

BASKOIAK GOGOAN 810N. URTERA ARTE

- Tito Livio(74 k.a.): Sertorio Kalagurri'ra etorri zan.euskaldunen zelaletatik zear,beroi en ondora eta emen ezarri eban gudarostea... eta urrengo eguneanVareia uri ospetsura etorri zan.

- Salustio(75 k.a.): Ponpeio Sertorio'ren aurka etorri zan Numantzia'ra eta garirik ez eukalako.euskaldunen lurraldera joan bear izan eban.

Salustio (72 K.a.):Galigurrirarrak giza-jaleak zirala diño eta baskoien artean ezarri ebal here gudarostea.erromatarren menpean egozalako.

- Varron-Plinio(50 K.a.):Auñamendi igaro eta baskoien artera eldu zan.... eta Auñamendi'ren bidez, itxas-ertzetik.euskaldunen basoa igaro eta Olarso ta barduloen urietara eldu zan, kantabroen lurraldera.

-Estrabon(Augusto'ren aldikoa):Nitzat iparraldeko leinuak kalaikoak.asturak eta kantabroak dira ,baskoietara arte... onein uria Kalagurri da, itxas-ertzean eta iberoen iparraldean bizi dira,jacetanoen auzokoak dira eta Ponpaelo da euren uria.

- Silio italico (Iturri zarragoak daukaz): Euskaldunak burutsik eta izkillu gitxigaz egiten dabe gudea. kantarbroak lez euskaldunak be burutzik borrokatzen dira.

- Jubenal: Kaligurrirarrak giza-jaleak dirala diño.

- Ptolomeo: Baskoien uriak oneik dira: Turissa. Ponpaelo, Bituris. Andelos, Nemanturisa, Curnonium, Iacca. Grakurris (Alfaro?) Kalagurris, Cascantum, Erkabika. Tarraga(Lan-aga?). Muskaria (Tudela) Segia (Ejea) Alabona.

- Ausonio: Baskoien basoa aitatzen dau.

- Juan de Biklara: Leobijoldo'k Baskonia'ren zati bat eskuratu eban eta Bitoriako irasi.

- Benantzio Fortunato(580): Txilperiko baskoien aurka.

- Tours'ko Gregorio: (574)Bladasten dukea Baskonia'ra joan zan eta gudarosterik geiena galdu eban.(587)Baskoiak mendietatik etorri ziran eta dana erre eben. eta dukeak ez eutsen kalte aundirik egin.

- Rabena'ko kosmografoa:Baskoien aberria dago,lena-go Akitania eritxona.

- San Isidoro: Suintila'k euskaldunen aurka guda egin eban eta oneik menperatu egin jakozan bildurrez(623). Rekaredo:Baskoien artera sarrerak egin ebazan(580), Gundomarus:guda baten baskoiak zapaldu ebazan. Fredegario(601). baskoien aurka ekin eban eta zergapean jarri ebezan. Dagoberto'k (636) baskoiak gogor etorri jakozan eta amar gudalburu ebazan gudarostea bialdu eban eta baskoiak aitzen artetik urtenda atzez guda egiten eben eta

galduta egozala ikusi ebenean,barriro aitz -arte an eskutatu ziran baiña asko artu ebazan katigu eta eurak il eta euren etxeak erre ebazan eta baskoiak bakea eskatu eutsoen Subola (gaur Soule)ibarrean.

- Amand deunaren bizitzan:guzurrezko jainkoak gurtzen ebezan euskaldunak ikertu ebazan eta euren bide okerretik atera ebazan Amand santuak.

- San Julian (Wanba'ren aldian): Wanba jainko-zaleak urten eban baskoi ankerrak azpiratzeko eta euren artera sartu zanean eta ain gogor egin eban lez,baskoiak baretu egin ziran eta baituak emon eta bakea eskatu eben emaitzak eskiñiz.

- Fredegario(742): Baskoiak Akitanian guda egiten eben eta Karlomanno ta Pipinno etorri jakezan aurka eta baskoiak bakea eskatu eben dana egiteko gertu (761)

baskoi asko baitu ebezan eta erail.

- Einardo:Karlomagno euskaldunen artera etorri zan eta ibero ibairaiño jarraitu eban nabarroen artean solo ederrak aurkituta(810): Emen lenengoz "nabarra" izena, Ebro- ondoan.

Labur esateko, Sertorio'ren aldian euskaldunak agertzen dira Ebro'tik gorantza, Kalaorra'tik Logroño'ra bitartean eta mendiz itxasora arte zabaltzen dira, Oiaso'ra arte. Ptolomeo'k on onartzen dau. 580 inguruan baskoiak Araba'n dagoz eta bear ba'da Bizkaian eta Gipuzkoa'n be bai. Eta or bitartean bardulo,karistio ta autrogoien lurak artu dabez. 810n.urtean agertzen da lenengoz "nabarri" izena. Eta euskaldunen leinu bat dira.

Olazar 'tar Martin 'ek

ZER-BIZKAITARRAI BIZKAIERAZ ALDIZKARIA

Egillea: "Euskerazaleak"

Kudeatzaillea: Fernandez'tar Karmele

Idazkola: "Euskerazaleak"

Zuzendaria: Olazar'tar Martin (Euskerazaintzakoa)

Idazleak: Atutxa'rar Paul (Euskerazaintzakoa)

Arrinda'tar Anes (Euskerazaintzakoa)

Aldalur'tar Justine

Egaña'tar Gotzon

Solozabal'dar Paulin (Euskerazaintzakoa)

Martiartu'tar Iñaki

Latiegi'tar Bixente (Euskerazaintzakoa)